ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 21a, asteazkena • 121 zk.

V - BESTELAKOAK

GASTEIZKO HIRI GARRAIOAK SA

Akatsak zuzentzea, honako iragarki honetan: 2025-588 iragarkia, TUVISAn lan-kontratu mugagabe finkoa egiteko oposizio-lehiaketa bidezko deialdiari eta oinarri arautzaileei buruzkoa (ALHAOn argitaratua, 2025eko otsailaren 28an, 24. zenbakian)

Akatsa atzeman da 2025eko otsailaren 28ko 2025-588 zenbakiko iragarkian, TUVISAn lan-kontratu mugagabe finkoa egiteko oposizio-lehiaketa bidezko deialdiari eta oinarri arautzaileei buruzkoan. Hori dela eta, honako zuzenketa hau argitaratzen da:

Zortzigarren oinarrian, honakoa dioenean:

"ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

Gehienez 67 puntu lor daitezke, honako atal hauen arabera:

1. Esperientzia profesional orokorra:

Lan-esperientzia orokorra da deialdiaren xede den lanpostuan edozein erakunde publiko edo pribatutan emandako zerbitzuak edo epaimahaiak eskainitakoarekin parekagarriak diren lanpostuak.

Lan-esperientzia hori 0,004 punturekin baloratuko da lan egindako egun bakoitzeko, gehienez 22 punturekin. Lanaldi partzialak lanaldiaren ehunekoaren arabera puntuatuko dira. Lan-kontratuetan sartutako lanegunak bakarrik zenbatuko dira, eta ez dira kontuan hartuko hartu gabeko oporrengatik ordaindutako opor-egunak, ezta zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia ere.

2. Esperientzia profesional espezifikoa:

Berariaz bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, deialdiaren xede den lanpostuan edo epaimahaiak eskainitakoarekin pareka daitezkeen lanpostuetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia espezifikoa baloratuko da, sektore publikoko edo administrazio publikoko bidaiarien hiri-garraioaren enpresetan. Salbuetsita geratuko da zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia.

Lan-esperientzia hori 0,008 punturekin baloratuko da lan egindako egun bakoitzeko, gehienez 45 punturekin. Lanaldi partzialak lanaldiaren ehunekoaren arabera puntuatuko dira. Lan-kontratuetan sartutako lanegunak bakarrik zenbatuko dira, eta ez dira kontuan hartuko hartu gabeko oporrengatik ordaindutako opor-egunak, ezta zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia ere."

Honela behar du:

"ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

Gehienez 67 puntu lor daitezke, honako atal hauen arabera:

1. Esperientzia profesional orokorra:

Lan-esperientzia orokorra da deialdiaren xede den lanpostuan edozein erakunde publiko edo pribatutan emandako zerbitzuak edo epaimahaiak eskainitakoarekin parekagarriak diren lanpostuak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Lan-esperientzia hori 0,004 punturekin baloratuko da lan egindako egun bakoitzeko, gehienez 22 punturekin. Lanaldi partzialak lanaldiaren ehunekoaren arabera puntuatuko dira. Lan-esperientzia gisa zenbatuko dira lan-harremanetatik eratorritako zerbitzu egunak, sortutako, hartu gabeko eta lan-harremana amaitzean ekonomikoki konpentsatutako oporrei dagozkien aldiak barne.

Aldi bera ezin izango da bi aldiz zenbatu, baldin eta, ekonomikoki konpentsatutako oporrei dagozkien egunetan, izangaiak beste lan-harreman batean lan egin badu, eta lan-harreman hori ere baloratzekoa bada.

Baloraziotik kanpo geratzen da zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia.

2. Esperientzia profesional espezifikoa:

Berariaz bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, deialdiaren xede den lanpostuan edo epaimahaiak eskainitakoarekin pareka daitezkeen lanpostuetan emandako zerbitzuengatiko esperientzia espezifikoa baloratuko da, sektore publikoko edo administrazio publikoko bidaiarien hiri-garraioaren enpresetan. Salbuetsita geratuko da zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia.

Lan-esperientzia hori 0,008 punturekin baloratuko da lan egindako egun bakoitzeko, gehienez 45 punturekin. Lanaldi partzialak lanaldiaren ehunekoaren arabera puntuatuko dira. Lan-esperientzia gisa zenbatuko dira lan-harremanetatik eratorritako zerbitzu egunak, sortutako, hartu gabeko eta lan-harremana amaitzean ekonomikoki konpentsatutako oporrei dagozkien aldiak barne.

Aldi bera ezin izango da bi aldiz zenbatu, baldin eta, ekonomikoki konpentsatutako oporrei dagozkien egunetan, izangaiak beste lan-harreman batean lan egin badu, eta harreman hori ere baloratzekoa bada.

Baloraziotik kanpo geratzen da zerbitzu zibilen edo merkataritza-zerbitzuen errentamendu-kontratuen, beken eta prestakuntza-praktiken zerrendapean emandako lanbide-esperientzia."

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urriaren 16an

Administrazio Kontseiluko lehendakaria
IZASKUN REYES ECHAZARRETA

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.21 05:59:31 Z